

MIGUEL de OQUENDO 1625-¿1674?

Familiako hirugarren okendotarra. Antonioren semea da eta hau ere Donostian jaio zen, baina ez zen Ana Molina ezkontzazko emaztearen semea izan. Sasiko semea izan arren aitak beregain hartu zuen, eta bere hezkuntzaz eta itsas zaletasuna emateaz arduratu zen hasiera-hasieratik. Lehenbiziko itsasbidaiak Amerikako bidean egin zituen, baina Frantziarekin *Hogeita hamar urteko gerra* hasi zenean Austria Etxeko Itsas armadan zerbitzatu zuen Kantauri itsaso inguruan. Bere merezimenduen ordainetan, aita bezala, Kantauriko Eskuadraren jeneral izendatu zuten, eta hitzarmenen bidez sei galeoi eta patatxe bat eraiki zituen. Westfaliako itunaren eta Frantziarekin sinatutako Pirinioetako itunaren artean eraman zuen aurrera bere itsas jarduera (1648-1659). Bizkaiko Golkoan ontzi frantziarrek burutu nahi zituzten hainbat eraso gelditzea lortu zuenez Felipe IV.ak zenbait pribilegio eman zizkion. 1660 eta 1663a bitartean bi galeoi gehiago eraiki zituen bere kontura, Ozeanoko Ontzidian integratzeko asmoz. Bi ontzi horietan bere bi semeek zerbitzatu zuten -Carlos eta Jose Okendok- eta biek ere kapitain kargua lortu zuten familiaren itsas tradizioari jarraituz. Baina Miguel Okendoren karrera zorigaizto batez amaitu zen; 1663ko urriaren 8a eta 9a bitarteko gauean izugarritzko ekaitz batek penintsulara eramaten zuen ontzidia harrapatu zuen Rotako kosta inguruan (Cadiz) eta ontzi guztiak suntsitu zituen. Ehunka hildako izan ziren eta metal preziatuzko dirutza galdu zen. Gertatutakoarekin arduraturik Gipuzkoako etxera itzuli zen babesleku bila, leporatu zizkioten salaketa guztiak gainetik kendu zizkioten arren. Bere aitaren bizitza idazten igaro zituen bizitzaren azken urteak “*El héroe cántabro: vida del Señor Don Antonio de Oquendo*” (1666) izenburuko liburuan. Halaber, Teresa de San Millan emaztearekin batera Lasarteko Bugidatarren komentua sortu zuen. Euskal Itsas munduari egin zion ekarpen handia eta nabarmena ikusirik Koroak Okendo eta San Millaneko Jaunaren tituluak eman zizkion.

El tercer Oquendo de la saga es hijo de Antonio y nació igualmente en Donostia, pero fuera del matrimonio con Ana de Molina. Aun siendo ilegítimo, su padre se encargó desde el principio de su formación, así como de transmitirle la vocación marinera. Sus primeras singladuras se circunscribieron a la ruta americana, pasando luego al servicio de la Marina de los Austrias en el litoral septentrional de España, a consecuencia de la entrada en conflicto con Francia durante la *Guerra de los Treinta Años*. Por sus méritos, llegó como su padre a ser general de la Escuadra del Cantábrico, construyendo a partir del método de asiento seis galeones y un patache. Entre la Paz de Westfalia (1648) y la Paz de los Pirineos con Francia (1659) se desarrolla su principal actividad marítima, otorgándosele diversos privilegios por parte del rey Felipe IV tras detener varios ataques sobre el Golfo de Vizcaya por parte de navíos franceses. Entre 1660 y 1663 construyó a su cargo dos galeones más, con objeto de integrarlos en la Flota del Océano. En estos navíos servirían sus dos hijos Carlos y José de Oquendo, llegando ambos al grado de capitán, prosiguiendo así la tradición familiar. Pero la carrera de Miguel de Oquendo se cerró de modo poco afortunado. Entre el 8 y el 9 de octubre de 1663 y mientras comandaba la Flota Oceánica con destino a la Península, no pudo evitar que un terrible temporal destrozase sus buques contra las costas de Rota (Cádiz), perdiéndose cientos de vidas y un enorme caudal en metales preciosos. El peso de la responsabilidad moral y política le decidieron al retiro en su casa de Guipuzcoa, aun si bien había quedado exonerado de todos los cargos que se le habían imputado. Los últimos años de su existencia estuvieron dedicados a escribir la vida de su progenitor, con el título *El héroe cántabro: vida del Señor Don Antonio de Oquendo* (1666), así como a la fundación del Convento de Búgidas de Lasarte, junto a su mujer Teresa de San Millán. Sus méritos fueron tantos en la consolidación del mundo vasco del mar que la Corona decidió investirle con los títulos de señor de Oquendo y de San Millán.

The third Oquendo of the saga was the son of Antonio and was also born in Donostia, but not from Antonio's wife Ana de Molina. Even though he was illegitimate, his father always saw to his education and transmitted his maritime vocation. His first voyages are limited to the route to America. He later served with the Navy of the Austria's in the north of Spain due to the conflict with France during the *Thirty Years' War*. Through his merits, he became, like his father, General of the Bay of Biscay Squadron, ordering the construction of six galleons and one tender. Most of his maritime activity took place between the Peace of Westphalia (1648) and the Treaty of the Pyrenees with France (1659). He was granted several privileges by King Philip IV after holding off several attacks on the Biscay Squadron by French ships. Between 1660 and 1663 he paid for two further galleons to be built with a view to adding them to the High Seas Fleet. His two sons Carlos and José de Oquendo served on these ships. Both became captains, therefore, continuing with the family tradition. But Miguel de Oquendo's career came to a rather unfortunate end. Between the 8th and 9th of October 1663, while he was commanding a high seas fleet on route to the Peninsula, he was unable to avoid a terrible storm that destroyed his ships against the coasts of Rota (Cadiz), losing hundreds of lives and a great amount of precious metals. The weight of the moral and political responsibility for this event led him to retire to his home in Guipuzcoa, even though he had been cleared of all charges brought against him. The last years of his life were dedicated to writing a biography of his father, titled *El héroe cántabro: vida del Señor Don Antonio de Oquendo* (1666), as well as to founding the Convent of Búgidas de Lasarte, together with his wife, Teresa de San Millán. His merits in the consolidation of the Basque maritime tradition were such that the Crown decided to grant him the titles of Señor de Oquendo and San Millán.

MIGUEL de OQUENDO